

Besarka orren beroa
altsua baita ziuurki:
umeak irri, oianak txalo,
kortako txalak ikoti...
Nik ere diardut pozik
lanari lotuz osoki.

Bego bai etxe aldea
lorenz loratan lertzer!
Aur ta emazte betí aurrera
etxeko zaindari eder:
gure maitasun giroa
ezpei iñoiz ere soil, alper!

LAN ETA LAN

*Udaldian gagoz. Uztailla. izadi osoa edertasunez jantzia,
mendi, zelai, baso ta ibar. Nere baserri aldean, ordea, lana
dut ugari; orain ez daukat itzalean etzanda lasa egoterik.
Lanari ekin bear diot, gogotsu.*

Doirlu: «Brabanteko Jenobeba...».

Indarrak badu berea dun lana,
gauza astunak jasotzea:
arri bat gora indarka jaurtiz,
gorantza du joerea...
Gorengo maillan xixtua amaituz
utzi oi dizu igotea,
ta berriz ere beerantza dizu
bere berezko jotzea.

Guk, baserrian, indar dagigu
jardunik denok lanean...
Geure kemenak hata bestekin
uztartuz egin-alean,
sendi osoko aurrera naia
atondurik ein berean,
senar-emazte ta ume txikiak
orobat goaz bidean.

Uztaillez goitik dabil euzkia,
gu ere lanez goi-goitik:
landa-muirioak helarrez daude
beren emaitzak oparik,
ni erne nabil sega-tresnakin
al dena mandioturik,
edo-ta muna ertzetan tente
meta txuntxurak egiriik.

Guriño dagoz arto-alorrak;
higarren aldiz jorratu
bearra dute; nik, lanpetua,
ezin atsedetik artu...
Sustrai ondora lurra ekarri,
helar gaizkiriak uxatu...
Gogo ta era apur batekin
oro dut laster gainditu.

Eldu zaizkidan lur-sagar goizak
bearrezko zait atera,
ta esku goxoz lur-zaflak kenduz
bizkor eman legorpera.
Ale umotuak bear dituzu
saskiz eraman etxera,
herakatz eta kipulak berdin
bilduko nik idorrera,

Ur-eske dauzkat piper, tomate,
uraza ta baina aldakak;
goiz-illuntzetan alai dituzte
artzen nere ur-parrastak;
ortako ditut gomazko *ziri*
biurkor luze bakanak,
jolaska legez arlo aundia
ureztatzen didatenak.

Ardura xamur zaitu dezadan
nere etxalde borobilla,
orla neguan ez naiz joango
auzora bizikai billa.
Etxe ostean duzu baratza
azoka zelai sotilla,
bai eta ere urte barruan
nitzat lan-leku ez illa.

ENE POTXOLO

*Urtetxo bat ez besterik gure ume pitiñak. Eder bai dala
seaska barnean, eta gure besoetan! Denok gaitu txorarazten.
Lan ostean, nolako orduak ematen ditugun geure potxolo oni
begira!*

Doiñu: «Goizian goizik... ».

Gure potxolo,
gure maitea,
oso zaitugu geurea.
Lotan zaudela
dira eztiak
aingeru orren begiak.